



Euskararen Bidegorriarekin bat. Lasarte-Oriako Udalak euskararen erabilera barruko zein kanporako zereginetan sustatzeko "Euskararen Bidegorria" plana jarri zuen martxan 2011an. 2013-2017 plana abenduaren 20ko batzarrean onartu zen PP eta PSE-EEren abstentzioekin. Orain, Euskararen Bidegorriaren barruan, komunikazio kanpaina abiatu du euskara sailak, herritarrengana iritsi nahian, haien arteko harremanetan lehen eta bigarren hitza euskaraz egitera gonbidatuz. Kanpainaren barruan, hainbat elementu erabili dira eta udal barruan hasitako "Euskararen Bidegorria" kanpora zabaltzeko. Kanpainaren leloa "Baitez egin lehenbiziko hitza euskaraz" atzo Udaletxeko balkoian jarri zen eta udaleko hainbat arduradun politikok argazkia atera zuten euskara zerbitzuaren planari nolabaiteko babesa eta atxikimendua adierazteko. Euskara sailetik adierazi dutenez, "udalak etxeko lanak eginak izan behar ditu. Udaleko langile zein arduradun politikok herri-tarra euskaraz artatzeko prest daudela adierazteko, egin da agerraldia".

3 UDALA

Aurrekontuen aldeko bozka emango du EAJK

Bildurekin eta PCLOrekin elkarrizketa eta negoziaketa ugari egin ostean, EAJK Udaltzarrean aztertuko diren aurrekontuei onospena emango diela jakitera emandu. Baldintza nagusia urte bukaeran mailegurik ez eskatzeko helburuarekin gastu arruntari eustea izan da.

4 GIZARTEA

Islada Ezkutatuak taldearen esker oneko ekitaldia

Igandean 12:00etan pleno aretoan ekitaldia egingo da Islada Ezkutatuak taldeak udalarekin batera. Honetan publikoki esker ona adierazi nahi zaie orain arte testigantza pertsonalak eman dituztenei. Ekitaldi irekia izango da eta herritarrak honetara gertutzea gonbidatu dituzte.



5 AISIA

Udaran euskaraz gozatzeko eskaintza zabala

Askatasunaren parkean aurkeztu zuten Ttakuneko eta udaleko ordezkariak herriko haur eta gaztetxoentzako udako eskaintza. Ohi bezala txokoak, udalekuak eta kanpaldiak dituzte aukeran. Iaz 650 haur izan ziren programa ezberdinetan parte hartzen eta astelehenetik aurrera eman ahaliko dute izena Udako Txokoetan.

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Neure kabuz



Jexux Arretxe
Elkarbizitza

Indarkeria bukatu denetik, badirudi nolabaiteko baketzea lortu dugula. Hala ere, iruditzen zait lan frango egin beharko dugula urteetako eraso bortitzek elkarbizitza utzitako zauriak sendatzeko. Ez dakit ordea, egiteko horrek duen berebiziko garrantzia jabetzen ote garen. Jaurlaritzak aurkeztutako planaren edukia biribila dela deritzot. Batik bat, kalitateko bizikidetzak zoru etiko sendoa behar duela finkatzen duenean. Baina, inolako akatsik leporatzekotan badu bat funtsezkoa dena, ez duela gizarteratzerik lortu. Ezin baita elkarbizitzaren alorrean gehiegi aurreratu, gizartearen parte-hartze eraginkorrik gabe.

Dudarik gabe, egoera asko alda dakiguke lekuko erakundeek jarrera aktiboagoa hartuz gero. Elkarbizitza behetik gora eraldatu eta hobetzen baita, herriko jendea eta udal agintarien esku-hartzearekin. Parlamentuan adostu den abiapuntu etikoari 'zoru' deitu ohi zaio. Ezinbestekoa zaigu hitz horren bi adieraz hartzea. Bat, elkarbizitzak minimo partekatua behar duela adierazten duena. Bi, herritarrek eguneroko harremanak garatzen dituzten lurzoruan erotu behar den kode etikoa ere badela erakusten duena. Herriko kale-auzoetako lurzoruan, hain zuzen. Baita denda eta tabernetan, lan edo txolarte aldietan ere,... Urteetan izua edo mendekua zabaldu eta erein den toki berberetan, beraz, sustraitu behar da zoru etikoa, jarrera hondagarri haiek erabat ezabatu arte.

Askok esaten dute lan isilaren bitartez aurreratuko dugula konponbidean. Nire ustez alderantziz da; hobe egiten dena agerian egitea. Bortxa edo mehatxa erabiltzearen alde dau-denek eraman beharko dute, horrela, auzo-lotsaren orbanak.

Batzuek eginkizun horretan hasiak gara dagoeneko. Herriko BAI plataformak deituta, gaiaren inguruko gogoe-ta egin dugu zenbait lasarte-orientarrek. Eta elkarbizitzaren zoria auzolanean errotzeko prest gaude.

Zorion agurrak



Unai
Zorionak maitia. 7 txokolatzeko muxu familia guztiaren partetik.



Irati
ZORIONAK maitia 6 urte jadanik! Muxu haundi bat etxeko guztien partetik! Aita, ama eta Leire



Oier
Zorionak pottoko zure 4. urtebetetzean muxuak, famili guztiaren partetik.



Malen
Zorionak printzesita. Ondo-ondo pasa familiaren partetik. Muxu handi bat.



Aizpea
Zorionak bihotza bi muxu goxo zuretzat Garazi, Elene, aitatxo eta amatxoren partetik. batez ere!!!



Juncal
Familia guztiaren partetik ZORIONAK! Amoñi-ren aldetik



Uxue
Zorionak bitxito zure laugarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partetik!



Iزارo
Zorionak lñi eta Ainhoa! Ongi etorri Iزارo gure artera



Eluxka
Zorionak zure bederatzigarren urtebetetzean. Oso ondo pasa aita-ama eta familiaren partetik.



Arrate eta Ixabel
Zorionak bikote!!! Urteek ez dute zuengan eraginik!!! Gure partetik.



Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje itxia eta trasteroarekin alokatzen da Zumaburun. 617912918
- Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. Telf: 607 491 663, Aritz.
- Garajea alokatu edo saltzen da. Zumaburuko Liberto eraikuntzan. Bi kotxeentzako lekua du. Harremanetarako, 669 813 035 edo 677 501 906.
- Garajea alokatzen da Hipodromo etorbidetan. 943 36 24 72

Salerosketak

- Lehen jaunartzeko mutilen jantzia, taila 10 eta surferako neopreno jantzia, 5 tamaina saltzen ditut. Egoera onean. 943 363 371.

- ASUS TF101 tableta salgai. Teklatua duen tableta da. 16Gb. 1024mg RAM. HDMI eta USB. Androidekin funtzionatzen du. 635 205 393

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduek zaintzeko. 631 253 468
- Etxean garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke externa edo interna moduan. Lehen bait lehen hasteko prest. Harremanetarako, 634 278 198.
- Interna, externa modura edo orduka lan egiteko prest nago. Garbiketan edo pertsona adinduen zaintzan. 671 763 558
- Emakumea lan bila dabil. Garbiketa lanak

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Iزارo Navarro Jimenez, martxoaren 28an.
- Natale Bujanda Arnedo, martxoaren 26an.
- Julene Zabala Gonzalez, martxoaren 24an.
- Unai Ruano Garcia, martxoaren 22an.
- Marco Mauleon Bories-Azeua, martxoaren 22an.

Heriotzak

- Mariano Fernandez Gonzalez, apirilaren 2an, 83 urte zituela.
- Juan Forés Albino, apirilaren 2an, 71 urte zituela.
- Alfonsa Flora Rendos Castrillo, martxoaren 31ean, 77 urte zituela.
- Mariano Valles Ibarra, martxoaren 27an, 90 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 4
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Larunbata, 5
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea, 6
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena, 7
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Astearte, 8
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Asteazkena, 9
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Osteguna, 10
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8,
Hernani, Tel.: 943 336 022

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikulueta edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Etzagire, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maitu Arruti, Aster Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

POLITIKA

EAJ aurrekontuen alde

Asteartean, Udaltzarrak 2014ko aurrekontuak aztertuko ditu

Ostegunean, Lasarte-Oriako EAJ-k 2014 urteko aurrekontuen alde egingo duela jakin arazi zuen Udaletxean eskaintako prentsaurrekoan. Erabaki honen arrazoiak azaldu zituen eta PSE-EEekin batera ere emendakin bat aurkeztuko dutela jakitera eman zuen.



Estixu Alkorta eta Boris Nogales EAJ-ko zinegotziak agerpenean.

TXINTXARRI

Osteguneko agerraldian, Estixu Alkorta eta Boris Nogales zinegotziek azaldu zuten legez, BILDUREkin eta PCLO-rekin elkarriketa eta negoziaketa ugari egin ostean, EAJ-k asteartean Udaltzarrarean aztertuko diren aurrekontuei onespina emango die.

Baldintza nagusia urte bukaeran mailegurik ez eskatzeko helburuarekin gastu arruntari eustea eta hori udaltxeko sarrera arrunteetara egokitzea izan da. "Guretzako, zerbitzu publikoen kalitatea mantentzeak, zergak eta tasak igo behar izan gabe, berebiziko garrantzia izaten jarraitzen du," azaldu zuen Alkorta.

Enplegua eta kultura

Baina alderdi jeltzaleko kideek aipatu zuten, badira beste arrazoi batzuk ere.

Aipatu zuten, EAJ-k Enplegu Sustapenaren aurrekontua igotzeko aparteko esfortzu bat egitea eskatu du,

baita udal ekonomia berpizteko ekimen berriak martxan jartzea ere.

Eta zentzu honetan, Euskaltegi zaharrea dauden udal jabetzakoak diren bulegoak zaharberritzeko eta autonomoei eta ekintzaile gazteentzat "enpresa haztegia" sortzeko aurrekontu-partida bat gordetzea lortu dela aurreratu zuten.

Era berean, egun erabilerririk ez duten eta udaltxe zaharrea kokatuta dauden udaleko bi etxebizitzin salmenta, enkante publikoan aterako direnak, aurrekontuetan sartzea lortu dela ere jakitera eman zuten.

Zinearen digitalizazioa borrokatu duten beste ekimena dela azpimarratu zuten. "Zine analogikoaren itzaliadirekin, ezinbestekoa zen digitalizaziorako saltoa ematea estreinekoak diren filmak proiektatzeko nahi bagenu," azaldu zuten. Eta digital for-

matoak besteak beste, filmak 3D eran ikusteko aukera emango duela aipatu zuten.

Azken arrazoiak elkarriedtzako pentsio-funtsara ekarpenik egin gabe urte bete igarondoren, udaltxeko langileen kuoten ordainketa osoa aurrekontuetan txertatzea lortu dela da.

Lankidetzak

Hau guztiaz gain, herriko beste indar politikoekin hitz egiteko eta negoziatzeko prestatasuna agertu zuen EAJk.

Horren emaitza San Pedroko parrokiaren teiltuaren konponketa diruz laguntzeko asmoarekin PSEkin batera aurkeztu duten emendakina dela adierazi zuten, "aurrekontuen zirraborroan sartzea onartu ez zen dirulaguntza bat izanik, beste indar politikoekin batera defendatuko dugun ekimena izango da azkenean".

PAILAZOAK

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Manuel Lekuonan apirilaren 26an

Xirimiri elkartearen 25. urteurrenaren ospakizunen barnean Pirritx, Porrotx eta Marimotots Bizipoza ikuskizuna izango da Manuel Lekuonan apirilaren 26an. Egun horretan herriko pailazoei bi emanaldi eskainiko dituzte, 16:30ean eta 19:00etan eta dagoeneko salgai daude sarrerak.

Saioetan pailazoez gain, Jalgune elkarteko lagunek parte hartuko dute hainbat dantzatan.

Sarrerak 7 eurotan daude salgai dagoeneko Lasarte-Oriako Jalgi Kafe Antzokian eta Urruzola mertzerian.

UDALA

Erribera eta Ola kalekoekin bilera

Udal ordezkariak Erribera eta Ola kaleko bizilagunekin elkar-tu ziren Pleno aretoan asteartean, jasaten dituzten usain txarren arrazoiak azaltzeko.

Nerea Sanchez zinegotziak Añarbeko Urak eta lanak egiten diharduen UTEarekin hitz egindako azaldu ziren bertarutakoei. Ur zikinez betetako depositoa garbitu egin da eta ondorioz, ez lukete gehiagotan jasan beharko halako usain txarrak. Duela bi urte egindako depositoa gertatutako matxura batek ur zikinen pilaketa eragin du denbora luzean eta UTEko langile batek izandako istripua dela eta konturatu ziren ardura duten erakundeek bertan zegoen arazoaz eta konpondu dutela jakitera eman diote udalari.

Hala ere, lanak aurreko ostegunean bukatu zirela esan ziren UTEak udaltxeko ordezkariari eta bizilagunek hurrengo egunetan ere bertan lanean egon direla azaldu zuten kexu besteak beste.

DANTZA

Gero Axular igandean kultur etxean

Ekainean Gero Axular dantza taldeak 10 urte beteko ditu. Ordutik hona gauza asko bizi izan ditu dantzan taldeak: dantzaldiak, bidaiak, hainbat ekintza eta ikuskizun, bilerak eta saioak, jai asko eta lan ugari, urduritasun eta txalo franko...

Apirilaren 6an, igandea, hori dena ospatzeko jaialdia egingo dute Manuel Lekuonan, "X. urteurrena" izena duen ikuskizuna aurkeztuz. Egun horretarako programa berezia prestatu dute dantzariak eta 250 pertsonatik gora igoko dira oholtzara.

IKASTAROA

Arrakasta enpresa sortzeko ikastaroak

Zure enpresa nola sortu eta kudeatu? ikastaroa hasi da Manuel Lekuonan. Taldea bete eta bigarren bat osatu zuten udalak jakitera eman zuenez. Ekintzaileei baita lan merkaturatzeko helburuarekin autoenpleguan aukera ona ikusten dutenei zuzendua dago eta eskualdeko Udalek eta Lanbide bulegoek sustatu dute.

5.edukiontzia gertuago

PSE-EEko Jesus Zaballos da udalean sortutako 5.edukiontzia jartzeko komisioko burua eta honek nota batean azalutakoaren arabera PSE-EE, EAJ, PP eta LOHP materia organikoa jasotzeko edukiontzi marroia herrian jartzea adostu dute.

Jesus Zaballosek dio Bildu abstenitu egin dela komisioren egindako bozketan. Zaballosen ustetan "Bilduk ezin izan du atez atekoa inposatu ez duelako nahikoa babes udalean eta kalean ere kritikoa azaldu direlako herritarrak talde abertzaleak nahi zuten sistemarekin. Hau guztiagatik, Bilduk zuzendu behar izan du bere jarrera".

Adostasuna tekniko eta

arduradun ezberdinen lanaren fruitu dela azaltzen du oharrean eta herritarrentzat garaipena suposatzen duela. Izan ere, "herritarren gehiengo azaldu da atez atekoaren kontra".

Aldi berean ziur dio "5. edukiontzia inplantazioarekin herritarrek erakutsiko dute sistema malgu, garbi eta eroso honi esker emaitza onak lortzen direla".

Berehala Mankomunitateko presidenteari helarazi zaio erabakia "Mankomunitateak



5.edukiontzia martxan jarriko da.

berak duela hilabete batzuk edukiontzi marroia jartzeko egindako gonbiteari erantzunez". Horrela datozen hilabeteetan materia organikoa biltzeko edukiontzia herriko kaleetan egotea espero dutela dio Zaballosek.

"EAJ hondakinen kudeaketaren iraganean"

EH-Bilduk BAI plataformak lehengo astean hondakinen kudeaketa ereduari buruz eskaintako prentsaurrekoari erantzun eman nahi izan zion atzo Oken-do plazan egindako agerraldian.

EH-Bildu-ren eredu eta "orain artean EAJ-k proposatzen zuena, iraganeko" ereduaren arteko ezberdintasunak garbi utzi zituztela aipatu zuten.

EH-Bilduk ez du EAJ-ren jarrera ulertzen, "begirada iraganen jarririk, birziklatzearen arka doazen politikak bultzatuz errausketaren moduan, %80ko birziklatze tasa lortzen dituzten praktika onen aurkako protestak sustatzen eta datuak apropos manipulatzeko" aipatu zuten.

Inerteen biltegari dagokionez, egonkortuak jasoko dituen biltegia dela gogorarazi zuten EH-

Bilduk eta hau zabortegekin parekatzea faltsua izateaz gain, alderdikoa dela ere azpimarratu zuten.

Honetaz gain, Zubietan konpostatze eta Tratamendu Mekaniko Biologikoa burutzeko plantak jarri eta Errazkinek aipatu legez, inerteen biltegia ez dela bertan izango adierazi zuten.

Adierazi zuten, Europak finkatutako %60a birziklatzeko asmoz herriko beste alderdiekin jarri da harremanetan baina ez da akordioa oraindik posible izan.

Eta sentsazio gazi-gozoa agertu zuten, "herrialdeko udalerrri asko egungo egoeraren jakitun, dagokion birziklatze tasetera iristeko egiazko apostuak egiten ari baitira sistema berrien bidez eta bitartean Lasarte-Oria atzean geratzen ari da".

Esker ona azaltzeko ekitaldia igandean

Islada Ezkutatuak taldeak eskerrak eman nahi dizkie laguntza eskaini dieten herritarrei

Igandean 12:00etan Udaletxeko pleno aretoan esker oneko ekitaldia egingo du Islada Ezkutatuak taldeak. Honetan publikoki esker ona adierazi nahi zaie orain arte beren testigantza pertsonalak eman dituztenei. Agerraldian azpimarratu dute, taldearen lana inpartziala dela eta gustatuko litzaiekeela bi aldeetan aritutako herritarren berri izatea.

TXINTXARRI

Islada Ezkutatuak taldeak 36ko gerrak eta ondorengo diktaduran herriko biztanleek jasandako gertaeren oroimena ikertu, berreskuratu eta jakitera eman nahi du.

Lan hau burutzeko herritarren testigantza funtsezkoak dira eta taldea sortu zenetik, 30 inguru izan dira dagoeneko jasotakoak asteazkeneko agerraldian azaldu zuten bezala.

Igandean ekitaldi berezia egingo dute udalarekin batera, pleno aretoan 12:00etan testigantza hauek eman dituztenei esker ona adierazteko eta Pablo Barrio alkateak esan bezala, "gerra zibiletik bizirik irten zirenei".

Barriok azpimarratu nahi izan du herriaren historia, "badira 28 urte Lasarte-Oria udalerrri moduan jaio zela eta Urnieta, Andoain eta Her-

naniko auzo bat izateari utzi ziola. Zentzu horretan, udalerrri gazte eta berri bat da, baina begirada atzerantz botaz gero historia handia duen herri batekin topo egiten dugu. Zati gozo eta pozgarriak izan dituen historia batekin, baina baita urte askotan horrenbeste biktima utzi dituzten gatazka politiko-militarrek ekarritako sufrimenduak eragindako zati garratzagoak dituenarekin ere".

Aldi berean, Islada Ezkutatuak taldearen lana goraiatu nahi izan zuen alkateak "guretzako beharrezkoa baita garai bateko lasarteoriarrak aurre egin zioten errealitate gordin eta gaur egun oraindik oso ezezagunaren identifikazio osoa. Arrazoi hori dela eta biktima orok bere aitortzaren, egitearen, justiziaren eta errepazioaren duen eskubidearengatik egiten ari den lan



Islada Ezkutatuak taldeko kideak eta Pablo Barrio alkatea ekitaldiaren aurkezpenean.

hau benetan beharrezkoa eta ezinbestekoa dela deritzogu".

Taldearen lan guzti hori ez litzateke "gerrate hartatik bizirik dirauten benetako protagonisten borondate onik eta laguntzarik gabe. Beraiek dira historiaren puzzlea osatzen laguntzen digutenak, pixkanaka eta beraien oroimenean aurkitzen dituzten piezekin, kontutan hartuta askotan izaten duten karga emozionala eta gogoratzeak eskatzen duen ahalegina".

Islada Ezkutatuak taldeak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako duen eskertza ekitaldi gongbidatu nahi izan zituen alkateak "gai honekin

sentsibilizatu dagoen herritar oro eta bereziki garai hura bizi izan zutenak".

Lanaren fruitu

Mailu Arrutik azaldu zituen ekitaldiaren nondik norakoak. 12:00etan hasita, taldearen aurkezpen labor bat egongo da, Joseba Tapia musikariak hainbat doinu eskainiko ditu eta testigantza eman duten pertsonen oroigarri xume bat ere emango zaie.

Orain arte egindako lanaren fruitu izan den esku orria ere aurkeztu zuen Arrutik. Honakoa etxe guztietan buzoneatu da eta besteak beste, gerran hildako herritarren zerrenda jaso da. "Iker-

izen jarraitzen dugu eta ez da zerrenda definitiboa bertan aurkeztutakoa, horregatik norbaitek informazioa edukiko balu, biziki eskertuko genioke errazte gure aldetik, lanean jarraitzen dugu".

Aldi berean, gehien bat alde bateko testigantza jaso dituztela esan zuen Mailu Arrutik eta gustatuko litzaiekeela nazionalekin gerran aritutakoek ezagutzea ere "taldea inpartziala da". Lanean jarraitzen dute eta testigantza gehiago jasotzeko prest daude beraz, herritarrak animatzen dituzte eurekin harremanetan jartzea.

Elkar ezagutzea helburu

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe guraso elkarteak Udalaren laguntza, Kulturartekotasun astea antolatutako du. Astelehenean eman zioten hasiera asteari eta dagoeneko hamaika ekintza egin dituzte. Gaur eta bihar izango dute parada ere hauekin gozatzeko.

Astelehenean, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Sasotako eraikinean Burunzpe guraso elkarteak Kulturartekotasun taldeak aste berezi honen aurkezpena egin zuen. Ikastetxeko zuzendari den Marga Iturriza eta Boris Nogales udaleko Hezkuntza batzorde buruaren laguntza izan zuten ekimenean.

Elkarteak haurren antzera, herrialdeak aldera batera utzi eta elkar ezagutu eta lan egiten ikasi behar dela azpimarratu zuen. Sasoeta-Zumaburu ikastetxean herrialde ezberdinetako haur eta gurasoak daude eta kultura horiei gutxiegi gehiago jakiteko kulturartekotasun astea antolatutako dute.

Marga Iturriza zuzenda-



Euren esperientziak kontatu zituzten guraso batzuek.

riak aipatu zuenez, "gure kulturaren egoera ikusita, oso garrantzitsua da horrelako lana egitea" eta gurasoei gai honetan lanean jarraitzeko eskatu zien.

Aste osoko lanketa

Ekintza ugari antolatutako astelehenean bertan, Kubako ama baten, Marokoko aita baten eta Ekuadorren egindako adopzio baten esperientzia ezagutu ahal izan

zuten ekintzara hurbildu ziren gurasoak. Gainera, mahai-ingurua ere izan zen eta teaz gozatzeko aukera izan zuten.

Astean zehar, bai Sasoeta, baita Zumaburuko eraikinean ere haurrek ekintza didaktikoak izan dituzte kulturartekotasuna lantzeko. Hala ere, ostirala eta larunbata izango dira egun garrantzitsuenak kulturarteko topaketa hauetan.

Sinadura bilketa



Asteartean egindako agerraldian hainbat herritarren babesa izan zuten antolatzaileek.

Bihar, larunbata, 12:00etatik aurrera Manuel Lekuonaren egingo den sinadura bilketarako deia luzatu du Gure esku dago herriko lantaldeak.

Manuel Lekuonako kafetegian herriko Gure Esku Dago ekimeneko lantaldeak agerraldia egin zuen asteartean hainbat eragilerekin batera larunbateko sinadura bilketa berezia iragartzeko.

Sinadurak biltzeaz gain, argazki erraldoia egingo da atxikimendua adierazten duten guztiek.

Jai giroan

Gorka Lasak azaldu bezala, larunbatekoa ez da izango

sinadura bilketa arrunta.

12:00etan txistularien doinuekin hasiko da ekimena. Ondoren, ipuin baten kontaketa izango da, bertso musikatu, Erketzen dantzak, Xumelaren kantak eta azkenik ekimenari amaiera emateko, Patxi Etxeberriaren bertsoak entzun ahal izango dira. Tartean taldeak Gure esku dago ekimenaren aurkezpen labor bat egingo du eta jai giroa herritarren sinadurak bildu bitartean izango dela aurreratu dute.

Ordu beteko iraupena izatea aurreikusten dute sustatzaileek eta herritarrak honetan parte hartzea deitu dituzte.

Udan hamaika abentura euskaraz

Udalak Ttakunekin antolatzen duen udako aisialdi eskaintza aurkeztu da

Udako oporretan herriko txiki eta gazteek aukera izango dute euskaraz gozatzeko. Txokoak, udalekuak eta zaharren kanpaldiak aurkeztu zituzten bart Askatasunaren parkean Ttakun elkarteko kideek eta Udaleko ordezkariak. Ekimenetan izena emateko aukera izan dute batzuek dagoeneko eta Udako Txokoen kasuan, astelehenean zabalduko da epea. Udalekuak Donemiliagian eta Gobiarenan izango dira aurten eta kanpaldiak bata Bizkaiko kostan barrena eta bestea Nafarroan.

TXINTXARRI

A skatasunaren parkean burutu zuten udal zein Ttakuneko ordezkariak udako egitasmoen aurkezpena atzo. Boris Nogales euskara batzorde burua, Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakaria eta Ttakuneko gainontzeko kanpaldietako hezitzaileek parte hartu zuten honetan.

Tomas Arrizabalak Ttakuneko aisialdi eskaintza kalitatezkoa eta euskaldunaren aldeko apustua azpimarratu zuen.

Boris Nogales udaleko ordezkariak azaldu zuenez urte asko dira udalak Ttakun kultur elkarteak uda sasoirako haur eta gazteentzat prestatzen dituen egitasmoak diruz lagundu eta babesten dituela eta aurten ere hala izango da "garrantzitsua iruditzen zaigulako gure herriko haurrek oporraldian ondo pasatzeko aukera izateaz gain, eskaintza ona eta euskalduna izatea".

Pili Bermejo, Eneritz Mendiluze, Haizea Sarasola, Irati Perez, Ainhoa Mendiluze, Gorka Segurola eta Iñaki Aristondok Ttakuneko hezitzaileek aurkeztu zituzten aurtengo udaren herriko haurrentzako prestatu duten eskaintza.

Pilik azpimarratu nahi izan zuen iaz, 650 haur eta gaztek parte hartu zutela udako eskaintza ezberdinetan eta hauekin aritu zirela 70 lagun inguru, begirale, koordinatzaile eta laguntzaile bezala.

Eneritzek aipatu zuen udako ekintzak prestatzeaz arduratzen den lan taldea lanean dagoela dagoeneko. Maiatzaren 10ean begirale taldea bildu eta asteburu pasa egingo dute "baliabideak eskaintzeaz gain, talde lana eta elkarrenganako konfiantza sustatu ahal izateko".

Eskaintza

Ohi bezala uztaila eta abuztuan goizetan txokoetan parte hartu ahal izango dute 3 urte-tik 12 urte bitarteko haurrek. Ohiko ordutegia 10:00etatik 13:00ak arte izango da baina

lan egiten duten gurasoei erraztasunak emateko asmoz Goiz txoko formula erabil dezakete, goizeko 9:00etan sartu ahal izango dira haurrak.

Txikiaren kasuan, psikomotrizitatearen lanketa eta ipuinak izango dira bidelagun. HH5-LH2koen kasuan, jostakiroa programa izango da oinarri "astero irteerak, jolas eta jarduera motibagarriak".

Adinean aurrera, irteera gehiago egiten dira eta LH2 eta LH3koek egonalditxo bat egiteko aukera izango dute txokoen baitan 4. astean "etxetik kanpoko lehen esperientzietako bat izateaz gain, taldearentzat oso esperientzia polita izaten da, aurtun Altzon" irteeran parte hartzea hautazkoa da. LH3-LH6, 8-12 urteko gaztetxoek programa "aurtengoan abenturaz jositik dator... Olinpiadak izango ditugu hilabetearen zehar lagun, bakoitzak bere taldea ondo defendatu beharko du. Honez gain, iaz bezala, irteera egunak izango ditugu eta jostakiroa programan Surfá".

LH3-LH6ko haurrei hilabete osoa udalekuz gozatzeko aukera ematen zaie. Udaleku itxietan aritzeaz gain, aukera dute txokoetan ere parte hartzeko.

Udalekuei dagokionez, LH5 eta LH6koak Donemiliagara doaz uztailaren 2tik 13ra eta LH3 eta LH4koak uztailaren 16tik 25era bitartean Gobiarenan.

DBHko gaztetxoek, kanpaldi ibiltaria burutuko dute Bizkaiko kostan zehar herrian bukatuta eta Nafarroa Xtreme DBH3 eta DBH4koentzat. Honetan Iñaki Aristondok azaldu moduan, Bortzirriak, Bertizarana eta Baztan inguruak ezagutuko dituzte eta "ia egunero kirolarekin trebetasunarekin eta naturarekin zerikusia duten probak egingo dira".

Izena ematea

Izena emateko epea zabaldu da eta Ttakuneko bulegoan egin daiteke. Udako Txokoen kasuan, astelehenean aurrera egin ahal izango da.



Eguraldi txarrari aurre eginez, udako oporraldietarako aisia eskaintza aurkeztu zuten.

2.
FASEA

www.garraioahobetzen.net

herritarrekin
martxan en marcha

Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

PARTE HARTU
ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean Mugil/Lurraldebus txartela kargatzeko 20 euroko bonoak zotz egingo ditugu.

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

Lasarte -Orian

EGUNA: Apirilak 9

ORDUA: 18:30ean

LEKUA: Villa Mirentxun

LABURRAK.-

Lasarte-Oriako IV. BTT travesia igandean

Saiatuz elkarteak antolatuta, igandean 9:30etik aurrera Lasarte-Oriako IV. BTT travesia egingo da.

Bi ibilbide ezberdin egin ahalko dituzte proban parte hartu nahi dutenek. Ibilbide luzeak 31 kilometro ditu eta motzak berriz, 26 kilometro. Bietan Andatza eta Buruntza mendietatik barrena ibiliko dira txirindulariak. Ibilbidean zehar indarrak berreskuratzeko anoa-postu bat izango da eta beste bat amaieran.

Proban parte hartu nahi duten pertsonen internet bidez kirol-probak-eko orrialdean egin behar dute inskripzioa, 8 euro. Egunean bertan ere Okendo plazan izena emateko aukera izango da 8:30etatik proba hasi bitartean, baina 10 euro ordainduko dituzte orduan. Parte hartzaile guztiek oroigarri bat jasoko dute.

Informazio gehiago eskuratu nahiez gero, www.saiatuz.com orrialdean aurkituko dute interesatuek.

Espaniako bosgarren Esteban Martinez

Esteban Martinez LOKEko judokak Espainiako junior txapelketan parte hartu zuen igandean Villaviciosa de Odon, Madrilen eta bosgarren postuan amaitu zuen lehia.

73 kg baino gutxiago mailan lehiatu zen herritarra. "Txapelketa ederra egin zuen," adierazi digu Gorka Aristegi entrenatzaileak.

Lehen borroka Cabrera kanariarraren aurka galdu zuen. Bigarren aukeran, Javier Martinez andaluziarra erraz garaitu zuen. Ostean, rankineko lehena den Luis Menendez valentziarrari ere irabazi zion. Brontzea Euskal selekzioko Xabier Cazorelaren aurka jokatu behar izan zuen. "Norgehiagoka oso gogorra eta berdindua izan zen". Tamalez herritarrak ezin izan zuten garaipena eskuratu eta bosgarren postua ekarri zuen herrira.



SQUASHA.-

Squash txapelketa abian da

Maiatza bitartean lehen fasea jokatuko dute

Squash-a gustuko duten herritarrek ekaina bitartean, kiroldegiko pistetara hurbildu eta kirol honetaz gozatzeko aukera izango dute arratsaldeetan.

TXINTXARRI

Squash txapelketa soziala hasi zen astelehenean. XXVI. edizio honetan 19 jokalarik parte hartuko dute eta bi multzotan daude banatuak. Horien artean daude iazko irabazlea Iñaki Garcia herritarra eta Iker Cañedo txapelundunordea.

Kirol zerbitzuak jakin arazi digunez, hiru fase izango ditu txapelketa.

Lehenengo astelehenean hasi eta maiatzaren 26an amaituko da. Itzuli bakarrek ligaska sistema erabiliko da



Astelehenean XXVI. txapelketako lehen bi partidak jokatu ziren kiroldegian.

talde bakoitzeko lehenengo hirurak finkatzeko. Hauek txapelundun fasea jokatuko saikatzeko dira.

Finalak

Beste bi faseak ekainean jokatuko dira eta txapelketako final eguneko partidak erabakitzeke balioko dute.

Txapelundun fasea, ligaska bidez jokatu da. Lehenengo biak final handian izango dira

eta hirugarrenak eta laugarren postuak ere egongo dira jokoan finalen egunean. Fase honetan parte hartu ahal izateko, lehenengo faseko partidak guztiak jokatu behar dituzte jokalariek.

Gainontzeko jokalariek kontsolazio fasea izango dute. Hau kanporaketa sistemaren bitartez erabakiko da eta onenek kontsolazio faseko finala jokatuko dute.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 5
Michelin, 10:00etan
 Ostadar-Astigarragako Mundarri
Infantil txikia, partaidetza, txapelundun fasea
Ugalde-Ventas, Irun, 11:00etan
 Mariño-Ostadar
I. infanila, txapelundun fasea
Michelin, 11:30ean
 Ostadar B-Ekintza
I. infanila, kopa
Michelin, 13:00etan
 Texas Lasartearra-Vasconia
I. Jubenila, kopa
Michelin, 15:30ean
 Ostadar-Hondarribi
Emakumezkoen Liga, kopa
Herrera, Donostia, 15:30ean
 Sporting de Herrera-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila
Michelin, 17:15ean
 Ostadar-Beti Gazte
Erregional Ohorezko maila

Igandea 6
Martutene, Donostia, 9:30ean
 Amara Berri-Ostadar B
I. kadetea, kopa
Michelin, 10:30ean
 Ostadar-Cultural de Durango
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Puia, Donostia, 11:00etan
 Vasconia-Ostadar
2. urteko alebina eskola
GAL, Irun, 11:15ean
 Ostadar-Behobia
Alebina, kopa

Agorrosin, Bergara, 17:30ean
 Bergara-Ostadar
I. Jubenila, igogera

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 4
HERRIKO TXAPELKETA
 19:45ean, Aritz-Txindoki
 20:45ean, Trumoi-Izarra

Larunbata 5
HERRIKO TXAPELKETA
 09:15ean, Izkiña-Arkupe
 10:15ean, Urdaneta H.K.-Indaux
 11:15ean, El punto-Buenetxea
 12:15ean, Ilargi-Balderi harategia

Kiroldegia, 15:30ean
 ISU Leihoak-Allerru Jaizkibel
 taberna *Gipuzkoako Liga*
Kiroldegia, 17:15ean
 Aldaz H.K.-Goierri
Nazional III. maila

SASKIBALOA

Larunbata 5
Usabal kiroldegia, Tolosa, 10:30ean
 TAKE Aralar kirolak-Ostadar SKT
Nesken kadete maila, errendimendua
Bikuña kiroldegia, Azpeitia, 11:15ean
 Andraitx-Ostadar SKT
Nesken junior maila, partaidetza

ATLETISMOA

Larunbata 5
Egia, Donostia, 17:00etan
 Herriko hainbat atletek V. Sudur
 krossa proban parte hartuko dute.

Igandea 6
Urnieta, 09:30ean
 Herriko hainbat korrikalarik

III. Urnieta mendi lasterketan parte hartuko dute.
Irun, 10:00etan
 Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako alebin eta infantil mailako atletek Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia izango dute.

JUDO

Igandea 6
Arriaga kiroldegia, Gasteiz, 10:00etan
 LOKEko Alex Saleta infantil mailako Espainiako txapelketarako saikapen proban izango da lehiari.
Arriaga kiroldegia, Gasteiz, 11:30ean
 LOKEko Fermin Baldak kadete mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko du.

SQUASHA

Ostirala 4
HERRIKO TXAPELKETA
Kiroldegian, 18:00etatik aurrera
 A eta B multzoko partidak bana ikusteko aukera.
 Astelehena 7-Osteguna 10
HERRIKO TXAPELKETA
Kiroldegian, 18:00etatik aurrera
 A eta B multzoko partidak bana ikusteko aukera.

PILOTA

Larunbata 5
GRAVNI TXAPELKETA
Atano IIIa, Donostia, 11:00etan
 Gipuzkoa (Axier Artea)-Iparralde
Eskuz binaka, jubenila

Ametsa Trinketa, Irura, 14:30ean
 Gipuzkoa (Aritz Solano)-Iparralde
Eskuz binaka, jubenila

TENISA

Ostirala 4-Igandea 6
Kirol guneko pista
 Lasarte-Oria ATG txapelketako partidak izango dira.

IGERIKETA

Larunbata 5 eta igandea 6
Usabal, Tolosa
 Buruntzaldea IKT-ko benjamin eta alebinek XIV. Paco Sanchez Oroimenezkoan parte hartuko dute.

ERRUGBIA

Larunbata 5
Asti,Zarautz, 9:30ean
 Beltzak Ostadar Jalai A-Irun
14 urte azpikoak
Asti,Zarautz, 10:30ean
 Beltzak Ostadar Jalai B-Gaztedi
14 urte azpikoak
Asti,Zarautz, 11:30ean
 Beltzak Ostadar Jalai A-Irun
16 urte azpikoak
Bilbo, 13:30etan
 Bilbao-Beltzak Ostadar Gure Etxea
18 urte azpikoak

Igandea 6
Asti,Zarautz
 Beltzak Ostadar Jalai eskolako alebin eta benjaminen Eskolen arteko topaketa dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 5
Deba, 10:15ean
 Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubenilak XLI.Amaikak Bat sarian lehiatuko dira.

Zarauz, 16:00etan
 Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteak XXIV.
 Zarauzitarra sarian parte hartuko dute.

Donostia, 16:30ean
 Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantil eta alebinek Donostiako Saria proban parte hartuko dute.

Igandea 6
Ordizia, 08:00etan
 Herriko hainbat txirrindularik Ordiziako zikloturista marxa - I Goierrialdea ezagutzen proban izango dira.
Biyak Bat elkarte, 08:30ean
 Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Itziarreko gainera egingo du iteera.

BTT

Igandea 6
Lasarte-Oria, 9:30ean
 Lasarte-Oriako 4. BTT travesia antolatu da.

BOLA-JOKOA

Igandea 6
Zerain 10:00etan eta 16:30ean
 Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Gipuzkoako kopako lehen saioa du.

— Agenda —

Ostirala 4-Larunbata 5, Manuel Lekuona kultur-etxean



Erritmoa eta haizea
Aste Musikalean

Lasarte-Oriako Kultura sailak antolatutako II. Aste Musikalaren baitan, gaur gauean iparraldeko Kalakan taldearen erritmoa eta eskal doinuez gozatzeko aukera izango da. Bestalde, bihar Musikene Metal Ensembleak kontzertua eskainiko du. Talde honetan haizeko instrumentuak dira nagusi. Egitarauan doinu klasikoak eta gaur egunekoak nahastuko dituzte.

rena" izena duen ikuskizuna eskainiko du.

Kulturartekotasun Aste

SASOETA IKASTETXEA

Ostirala 4

16:30ean, merienda, tailerrak eta "Kubatar sustraiak" erakusketa.

18:00etan, Saltsa ikastaroa azkarra eta 18:30ean, "Habana son" eta Amaia Gonzalez Caballeroren dantzaldia.

Larunbata 5

11:00etan, nazioarteko ginkana.

12:30ean, euskal dantzak, Kukuka.

13:00etatik, herri bazkaria.

15:00etan, arabiar tea jaiman chillout musika arabiarrarekin.

17:00etan, merienda.

17:00etan, sevillana ikastaro azkarra.

17:30ean, Zambra taldearen ekitaldia.

18:00etan, Bollywood ekitaldia.

Bakarrizketa

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 5, 00:00etan

Humberto Gutierrez-en umorezko bakarrizketa izango da.

Gure Esku dago

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 5, 12:00etan

Gure Esku dago taldeak sinadura bilketa eta argazki erraldoia antolatu du.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Apirila amaiera arte

Udako Txoko eta Kanpaldien argazkiak ikusteko aukera.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 6, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Los cinco. El misterio de la joya escondida" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 6, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Al encuentro de Mr. Banks" filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 4, 22:00etan

Luis Beltza records dj-aren eskutik, Marvin Gaye-ri tributo jaialdia egingo zaio.

Larunbata 5, 21:30ean

Fake Against The Machine-k RATM taldearen doinuak ekarriko ditu Lasarte-

Oriara. Sarrera aurrez erosita, 8 euro; leihatilan, 10 euro.

Larunbata 5, 23:55ean

Dj Chelisen eskutik musika elektronikoa bereziaz gozatzeko aukera.

SIGLO 20

Larunbata 5, 23:30etatik aurrera

Dj Janofreestyle-k indiedancerock saioa eskainiko du.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 6, 12:00etan

Gero-Axular Dantza taldeak "X. urteu-

— Herritarren txokoa —

Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruña artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekuri gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

Megaba elkarteak kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrak animatzen dituzte honetan parte hartzea.

Horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagola.

Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan.

Interesa duten herritarrak gerturatu daitezela klase orduetan.

— Hemeroteka —

Duela 1106 ale

Txirindularitzaz gozatzeko lau egun berezi izango zirela argitaratu genuen 1996ko apirillean, bi ekintza garrantzitsu izango baiziren gure herrian, Euskadiko Txirindulari Itzulia eta 23 urte azpikoek Nazioarteko klasika.

Lasarte-Oriako Euskadiko Txirindulari Itzulia hartu ahal izateko martxoaren 26an Lasarte-Oriako Udalak eta Diarrio Vasco kirol erakundearen arteko hitzarmena sinatu zen. Lasterketaren berri eman zuten sinadura ekimen horretan eta TXINTXARRI-k nondik norako guztiak azaldu zituen.

Lasarte-Oria Txirindularitza klubeko kideek zerikusi handia izan zutela azpimarratzen da honetan. "Elkartean bururatu zitzaigun ideia hau eta ondoren alkatearengana jo genuen. Gure herriak hamar urte bete berri dituen, berari ere ideia interesgarria iruditu zitzaion" azaldu zuen orduan Jose Luis Mayozen elkarteak kideak. Honela, Itzulari esker, pelotoiko izar nagusiak Lasarte-Orian izango ziren bi egunetan. Izan ere, Lasarte-Orian hasi eta amaitu zen urte horretako lehen etapa eta bigarrenaren hasiera ikusteko aukera izan zen.

Bi egun hauetaz gain, apirilaren 6an, Lasarte-Oriako Nazioarteko klasika ere ospatuko zela adierazten da artikuluan. Honetan 23 urte azpiko txirindulariek parte hartu ahal zuten. Hamabost talde, horietako bost atzerritarrak izango zirela aurreratu zuten, baita proba interesgarria izango zela ere.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Maite Azkona Lasarte-Orian euskara ikaslea

“Euskaraz bizitzera etorri naiz”

Euskara ikasteko modu asko daude ikastaroak, barnetegiak... baina badira Juan Martin "Kutsidazu bidea Ixabel" liburuko protagonistaren antzera baserri batera euskara hobetzeko joaten direnak ere. Horietako bat Maite Azkona dugu. Andosillako gazte honek bere herria utzi eta Lasarte-Oriara etorri da euskaraz bizitzera.

Nerea EIZAGIRRE

Nork esango luke Lasarte-Oria euskara ikasteko leku aproposa dela. Bitxia badirudi ere, Maite Azkona gazte andosillarra gure artean da euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko. Hilabete batzuk daramatza herrian eta ekintza ugari parte hartzen du. Harekin bildu gara Lasarte-Oria zergatik aukeratu zuen jakin eta Erriberan euskararen egoera zeren den gertutik ezagutzeko.

Euskaraz txikitatik ikasi zenuen edo Unibertsitate ikasketen ondoren hasi zinen ikasten?

Herrian txikitatik eskolan ikasi nuen euskara eta institutuan ere euskaraz ikastea aukeratu nuen.

Unibertsitatea eta gero, Iruñean eta Sartagudan egon nintzen euskara ikasten. Aurtan Lasarte-Oriara etorri nintzen.

Niretzako oso garrantzitsua da euskara eta ikasi beharko litzatekeela uste dut.

Unibertsitatean ez zenuen aukerarik izan euskaraz ikasteko?

Ez, unibertsitatean magisteritza musikala gazteleraz ikasi nuen.

Euskaraz hobetzeko aukera asko daude barnetegiak, ikastaroak, ... baina zuk Lasarte-Oriara etortzea erabaki zenuen, zergatik?

Barnetegiak ikusi nituen, baina nik kurso osoa euskaraz bizi nahi nuen, hobeto komunikatzen ikasteko.

Hasieran ez nuen lekua argi. Hemen jende ezaguna nuen... Horregatik, errazagoa izan zen aukeratzea.

Gainera, lana bilatzera etorri eta azkenean hemen geratu nintzen.

Noiz etorri zinen Lasarte-Oriara?

Irailean etorri nintzen, sei hilabete egin ditut Lasarte-Orian.

Oso pozik nago eta herria ongi dago. Hasieran euskaltzegan balduta nengoan, baina gero moldatzen joan nintzen.

Zer egiten duzu euskaraz ikasteaz aparte?

Goizetan emakume bat zaintzen dut.

Baserri batean bizi naiz Zubietan. Logela bat alokatu nuen bertan eta etxeko emakumearekin egoten naiz.

Berak guztia euskaraz hitz egiten du eta, berez, aukera oso ona da nire mintzamen maila hobetzeko.

Arratsaldeetan normalean

AEK euskaltzera noa, egun bat dantzara noa, beste bat Solaskidera, ostegun batzuetan pintxo-potera ateratzen naiz koadrila batekin. Lagun bat neukan hemen eta bere koadrilarekin joaten naiz. Kostatu zait baina pixkanaka lortu dut herrira egitea.

Beraz, euskaraz egiten diren beste ekintza batzuetan ere parte hartzen duzu...

Nik ez nekien herrian horrelako ekintzak zeudenik. Gauza asko daude Lasarte-Orian euskaraz egiteko!

Nire herrian ezberdina da. Han ez dago inor euskaraz hitz egiten duenik eta hemen euskara erabiltzeko aukera asko dauzkatz. Orduan oso ona da.

Hasieran aipatu duzu lan bila etorri zinela. Euskal Autonomia Erkidegoan magisteritzan lan egiteko garrantzitsua da euskara..

Bai, aukera gehiago duzu lana aurkitzeko. Baina oso zaila ikusten dut hemen lana topatzea.

Lana aurkitu ez badut ere, pozik nago euskarekiko eman ditudan aurrera pausoak direla eta. Orain behintzat elkarrizketa bat jarraitu dezaket eta bertan parte hartu dezaket arazorik gabe. Iaz pentsa ezina zen.

Andosilla inguruan aukera gutxi dago euskara ikasi

edo hitz egiteko...

Lodosan AEK euskaltzera dago baina pertsona eta talde gutxi daude.

Iaz bertan euskara ikasteko aukera nuen, baina Sartagudara joaten ginen.

Txarrena zen maila oso ezberdinak daudela talde batean.

Baina euskara ikasteko aukera dago; euskaraz hitz egiteko berriz, arazoak daude.

Beraz, zein da euskararen egoera

Andosilla eta Erribera aldean?

Aipatu dudan bezala, gazteleraz bakarrik hitz egiten da.

Ni Andosillako naiz, baina Lodosan dago ikastola. Beraz, Erriberan haurrek euskaraz ikasteko aukera dute. Baina normalean kalean ez da ezer entzuten.

Gure herrian, berriz, txistulari talde bat dugu eta elkartzeko gara noizbehinka, bazkariak egiteko. Orduan entzun dezakezu euskara.

Noiz arte egongo zara Lasarte-Orian?

Momentuz maiatza edo ekainera arte geratzeko asmoa dut.

Baina gero agian beste urte bete egingo dut. Niri ez dit axola horrek, azkenean euskara ikasi eta euskaraz bizitzera etorri naiz.




Euskaraz Errentagarritasun Erraldoia



BaleEtekina

bai zuretzat, baita euskararentzat ere

Autolikidazioa baliatu,
errenta aitortzen euskaraz!



Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.org>
Sartu Buruntzaldeko Facebook-en eta parte hartu gure lehiaketan!



LASARTE-ORIA
UDALA



Buruntzaldea